

Parabola bat kontatzera noakizue, denboraz egia bihurtu dena. Bi seme zituen gizaki batek, bata 1945ean jaioa eta bestea 1979koa, biak ia 35 urte parekatuak bizi izan zirenak. Bigarrena gizaseme ofiziala zen eta da, instituzionala izaerari dagokionetik amaiera bakoa baita. Lehena, zaharrena, pribatua izan da, jasoriko zertzelada guztien arabera, mugikor izan dena eta azkenean, desagertu dena.

Bigarrenari, instituzio baten barnean bizi izan denari, *Azkue* izena jarri zion bere biziaren arduratu zenak. Eta lehenari, sortzailearen etxe barruan bizi izan zenari eta berezi beharrik ez zeukanari ez zion ugazabak izenik jarri. Uzte dut honezkero parabolak ezkutuan zeukana igarriko zenuela. Bi semeak liburutegia eta biblioteka direla argi izango duzue eta gizaki sortzaileaz ez noa argibiderik ematen aurrean naukazue eta.

Azkue Bibliotekaren historia argitaratuta dago *Euskera* aldizkarian, Pruden Gartzia zuzendari berria sartu zen arte behintzat. Eta laburrean baino ez bada ere, azken 12 urteotakoa Joan Mari Torrealdaik eraginda aipatua da arlo nagusientzat. Baina beste liburutegiarena, pribatuarena, liburuan inprimatua gaur ematen zaiguna, idatzi gabe dago eta baliteke bateren batek ezagutu nahia izatea. Eta horren berri ematea neuri dagokit, dudarik gabe.

Nire liburuekiko estimua, hamabost urte nituenean edo sortu zitzaidan. Ez dago zertan esan beharrik paperezko liburuekikoa zela, oraindik galdu ez dudana. Andres Ibañez Arana latinezko irakaslea Arteako seminarioan izan zen liburuekin apurtu ezinezko erakarria eman zidana. Berarekin batera sortu nuen seminarioaren biblioteka. Gero, denok ezagutu zenuten Andres Mañarikua Gasteizko seminarioan, hango biblioteka ederrean laguntzaile hautatu ninduen. Seminarioko ikasketetan Erroma eta Greziako testuak itzultzen egunero ibilita, gero atsedendaldietan edo, Kixote, Unamuno, eta Dante (gogoan ditudanak) irakurtzen nituen. Baina irakurri nuen gaztelaniarik ederrena, Fray Luis de Leon-en *Los nombres de Cristo* izan zen. Erosi ere egiten nituen liburuak, esate baterako Gonzalo de Berceo-ren *Los milagros de Nuestra Señora*. Eta abar, baina ez luzeegia diruz urri nenbilen eta. Handik irtenda 1947an Muxikan topo egin nuen euskararekin. Hiru liburu ditut gogoan: Aita Felix Bilbaoren *Ipuin barreka*, Jose Bazterretxea "Oskilasoren" *Kurloiak*, eta oparitu zidaten Olabideren *Itun berria*. Beraz, herriko euskara (Bilbao), euskara batu berezia (Oskilaso) eta nolabait esatearren, euskara asmatua (Olabide). Pelotaka egiteko hiru hormako frontoia!

Hor hasi nintzen euskal liburuak erosten eta nire liburutegia eratzen. Liburuak iturri askotik lortzen nituen, bana gehien bisitatzen nuena, nire egarria kentzeko, Bilboko Atxirikaren libreria zen. Han, dendaren atzealdean ezagutu nuen Gabriel Aresti. Liburuak erosteko ez zegoen orduan problema handirik, etxerik etxe ibitzen ziren saltzaileak eskaintzen eta. Retanarenak, esate baterako, edo harpidetzaz (Auspoa, Auñamendi, Ekin, e.a.) Milaka liburu bildu nituen etxean, Katalogoan ikus daitekeenez.

Baina hainbat liburu edukitzeak beste problema asko sortzen ditu, espazioarena, noski. Lau gela nituen beterik nire neurri handiko etxebizitzan. Eta

XXI. mendeko lehen urteetan bost ebakuntza egin zizkidaten Galdakaoko ospitalean, eta zortzi aldiz egon nintzen han barneratuta. Ahul nengoen hirugarren solairuan zegoen nire etxera igoteko, eta igogailua zeukan beste etxe batera bizitza joateko hartu genuen erabakia. Baina nola neurri txikiago etxe batean neuzkan liburu eta artxiboak sartu? Liburutegia zatitzea erabaki nuen eta seme-alaba bakoitzari bere gustukoa zen gaiaren arabera, liburuak multzoka banatzea iruditu zitzaidan. Familiakoek ez zuten onartu irtenbide hori, liburutegiak osorik jarraitu behar zuela eta. Zainduko zuen instituzio bati ematea erabaki zen, ikerleentzat baliagarri izan zedin.

Parabolako lehen semea, aldi berean, bi zatitan zegoen banatuta: liburutegi eta artxibo musikala, alde batetik, eta euskara eta euskal kultura orokorra, bestetik. Salomonen erabakia hartu behar genuen haur honekin: 2005.eko abenduaren 5ean, Liburutegi eta artxibo musikala Eresbilera eraman zuen Jon Bagues adiskide eta musikologoak. Eta beste guztia, hots, euskal kulturako ondarea, 255 kutxetan eramana izan zen 2006.eko azaroaren 30ean Euskaltzaindira. Orduetik hona, Azkue Bibliotekako talde teknikoa, Maria Angeles Gonzalez laguntzeko hitzartuta, katalogazio lanak burutzen ibili da, lan hori 2008.eko urtarrilaren 20an bukatuz.

Geroko lana izan da ordenagailutik fisikoki liburu formatura pasatzea. Eta gaur lan bukatuaren aurkezpena egiteko eguna da. Eta jakina, nire aldetik Euskaltzaindiari eskerrak emateko aukera. Besterik ez, nahiko baita.

Bilbon, 2009ko abenduaren 29an
Jose Antonio Arana Martija